

PARTE HARTZEKO DEIALDIA

SIRHA LYON 2027

Euskadiko Elikagaien Industriaren sustapena

**Data:**

2027ko urtarrilak 21 - 25

**Tokia:**

EUROEXPO Lyon

**Nori zuzenduta:**

Banaketa-kanaletako profesionalak,
inportatzaileak/handizkariak, retail,
banaketa handia eta HORECA
espezialistak, chefak...

**IZEN-EMATE IREKITA****2026ko uztailaren 31a**

arte

**Azokaren webgunea:**www.sirha-lyon.com**Maiztasuna:**

Bi urtetik behin

**INFORMAZIO GEHIAGO**

Sara Lasa eta Lucía de Artaza

☎ 944 70 65 00

✉ agro@camarabilbao.com

SIRHA LYON 2027

Euskadiko Elikadura Industriaren **kanpo-sustapena babesteko jarduketan barruan**, Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila antolatzen ari da, HAZI Fundazioaren bitartez, Euskadiko elikadura-enpresen taldeko partaidetza **SIRHA LYON 2027** azokan; **EUREXPO LYON**-en izango da, **2027ko urtarrilaren 21tik 25ra**.

AZOKAREN IZAERA

Frantzia, bere azpiegiturak direla eta, gure esportazioetarako estrategikoki kokatuta dago, eta, gainera, Europako gainerako herrialdeetarako sarbidea da. 67 milioi biztanle inguruko merkatua izanik, Espainiako lehen merkatua da nekazaritzako elikagaien esportazioetarako, eta gourmet merkatu nagusietako bat da.

Kontserbako eta prestatutako elikagaien kontsumoa Frantzian baino handiagoa da, eta, horregatik, produktu mota horien inportazioak etengabe hazten dira. Arrain-kontserbek kokapen ona dute. Heldutasun-fasean egon arren, kontsumo-maila altuan mantentzearen berezitasuna du. Plater prestatuen sektorea, bere kalitate eta prezioagatik, merkatuko gourmet nitxoan kokatzen da. Gozogintza eta gozokiak Frantzian eskatutako produktuak dira, kakaoa edo txokolatea bezalako produktu batzuen jatorriari garrantzi berezia emanez

SIRHA LYON azoka Elikagaien Industriarako nazioarteko garrantzia duen azoka-plataforma bat da, publiko profesional bati soilik zuzendua, non gastronomiak eta gourmet produktuek garrantzi berezia duten.

Bi urtean behin egiten den ekitaldi honetan, elikagaien sektoreko erakundeetako ordezkariak parte hartzen dute aktiboki, joera eta produktu berriak, merkatuaren aurrerapenak eta hornitzaile berriak aurkitzeko helburuarekin.

Euskadik **SIRHA LYON**en duen parte-hartzea gourmet sektorerako erreferentziazko ekitaldi gisa finkatu da, gehienbat Frantziakoak eta herrialde mugakideetakoak diren publikoekin.

SIRHA LYON 2027

AZOKAREN IZAERA

SIRHA LYON 2025 DATUAK



+ 257.000
bisitari
profesional



+ 140.000 m2
erakusketa
gunea



4.879
marka eta
expositore



80
mahai inguru,
klase magistral
eta konkurtso



+ 800
berrikuntza

EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-A

Eusko Jaurlaritzak **SIRHA LYON 2027** azokan parte hartzeko interesa duten euskal elikagaien industriako enpresentzako gune bat izango du. **Euskadi Basque Country** standa Nazioarteko Pabiloian egongo da.

Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du, baldin eta parte hartzen duten enpresen **gutxieneko kopurua badago**.

Euskadiren ordezkaritzak gehienez ere enpresentzako gaitasuna izango du. Interesa duten enpresa guztientzat lekurik ez badago, **hautaketa inskripzio-hurrenkeraren arabera** egingo da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Ekitaldi honetan parte hartu ahal izango dute soilik gizarte-egoitza Euskadin duten eta Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleek.

AZOKAREN AURRETIK

Enpresako ordezkari batek **parte hartzeko konpromisoa hartzea** eta dagokion kuota ordaintzea; beraz, ezin da baja eman Euskadiren standean sartu dela jakinarazi ondoren.

Enpresek **nahitaez joan behar dute** muntaketa-egunera, adierazitako orduan, salgaiak jasotzeko eta standetako apainketa-lanak amaitzeko, inaugurazioaren aurretik eta beharrezko aurrerapenarekin.

AZOKAN ZECHAR

Erakutsitako produktuek **Euskadiko fabrikaziokoak izan beharko dute**. Ezingo dira inolaz ere aipatu edo aurkeztu beste autonomia-erkidego batzuetako produktuak.

Standean egon azoka-egun eta -ordu guztietan zehar.

Azoka amaitzean, produktu guztiak **behar bezala jaso** eta standeko elementuak jasotako baldintza berdinetan entregatu.

Enpresa bat standetik joaten bada, justifikatutako ezohiko arrazoirik gabe, azokaren ordutegi ofizialean zehar, hurrengo edizioan lehentasunezko eskubide guztiak galduko ditu (inskribatzeko ordena eta gainerakoak). Soilik haren eskaera artatuko da espazioa badago eskuragarri gainerako eskaera guztiak artatu ondoren, inskribatzeko eta ordaintzeko egunetan.

Halaber, enpresa batek edo gehiagok standa uzteagatik Eusko Jaurlaritzak, taldearen antolatzaile gisa, **zehapen ekonomikorik** jasotzen badu azokaren antolatzaileen eskutik, berehala bidaliko zaie arau-haustea eragin duten enpresei.

AZOKAREN ONDOREN

Ebaluazio-inkesta bete, eskatzen denean.

PARTE HARTZEKO KLAUSULA JURIDIKOAK

SIRHA LYON 2027an parte hartzea borondatezkoa da, eta ez dakar eskubide automatikorik plaza lortzeko edo parte hartzeko etorkizuneko jarduketetan. Onartu aurretik, deialdi honetan, Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean eta araudi aplikagarrian jasotako eskakizunak bete beharko dira, eta, plazak eskuragarri egoteaz gain, azokaren antolatzaileek baldintzak baieztatu behar dituzte.

ARAUDIA BETETZEA ETA BAZTERTZEKO ARRAZOIAK

Ezin izango dute parte hartu zigor penal irmoa edo administrazio-zehapen irmoa jaso duten erakundeek, honako hauekin zuzenean lotutako arau-hauste astun edo oso astunengatik: jarduketaren xede-jarduerarekin, elikadura-segurtasunarekin, lan-araudiarekin, tratu-berdintasunarekin, kontratazio publikoarekin edo laguntza publikoetarako sarbidearekin.

Deialdi honetan, Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean edo araudi aplikagarrian jasotako baldintza eta betebeharrak urratzeak partaidetza ukatu, mugatu, baztertu edo gaitzestea eragin dezake, arrazoituta eta bidezkoa denean, erakunde interesdunari entzun ondoren.

BALORATZEKO ETA BAZTERTZEKO AHALMENAK

HAZI Fundazioak, arrazoituta, indarreko prozedura judizial eta administratiboak baloratu ahal izango ditu, baldin eta izaeragatik, larritasunagatik edo ondorioengatik, jarduketaren garapen egokiari, taldeko partaidetzaren erakunde-irudiari edo xede-interes publikoari eragin ahal badiete.

Indarreko prozedura judizial edo administratiboak egoteak ez dakar, besterik gabe, erakunde eskatzailea automatikoki baztertzea. Erabakiak hartzeko, proportzionaltasunaren, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta arrazoiketa nahikoaren printzipioak errespetatuko dira.

PARTE HARTZEKO KLAUSULA JURIDIKOAK

ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Parte hartzeko eskaera osatutzat jo dadin, enpresak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du araudia betetzeari eta parte hartzeko baldintzei buruz, deialdi honetan **I. Eranskin** gisa atxikitako ereduarekin bat, honako hauekin batera: izena emateko inprimakia, ordainagiria, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta izatearen frogagiria eta lehengaien jatorriari buruzko zinpeko adierazpena.

Adierazpen horren bidez, erakundeak adieraziko du araudi aplikagarria betetzen duela, ez dela izan zigor penal irmoaren edo administrazio-zehapen irmoaren xede deialdian jasotako terminoetan, indarreko prozedura judizial edo administratiboak jakinaraziko dituela, partaidetzari eragin ahal badiote, eta konpromisoa hartzen duela aldaketa garrantzitsu ororen berri emateko hautaketa-prozeduran zehar edo azoka egunetan-zehar.

Datu garrantzitsuak faltsuak nahiz okerrak badira edo ezkututzen badira, partaidetza ukatu, baztertu, mugatu edo gaitzetsi ahal izango da, balizko erantzukizunei kalterik egin gabe.

JARRAIPENA ETA KONTROLA

HAZI Fundazioak informazio gehigarria eskatu, adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta emandako partaidetza berrikusi ahal izango du. Urraketa-kasuan, partaidetza gaitzetsi edo mugatu ahal izango da, arrazoituta eta bidezkoa bada, erakunde interesdunari entzun ondoren.

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzak taldeko partaidetza aurreikusi du **SIRHA 2027** azokan, espazioaren eskuragarritasunaren, enpresa interesdunen gutxieneko kopuruaren eta azoka-antolakuntzak baldintzak baieztatzearen arabera.

Eusko Jaurlaritzaren standak gaitasuna edukiko du gehieneko enpresa-kopuru batentzat. Enpresa interesdun gehiago badaude, hautaketa bat egingo da, inskripzio-ordena zorrotzaren arabera. Inskripzioa osatutzat joko da eskatutako dokumentu guztiak aurkeztean: izena emateko inprimakia, ordainagiria, lehengaien jatorriaren zinpeko adierazpena, araudia eta parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta izatearen frogagiriak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren presentzia bermatzeko, enpresa partaideen gutxieneko kopurura heldu beharko da.

1

BANAKAKO Stand
eredua

2

Stand **BIKOITZA**
eredua

OHARRAK:

1. Stand bikoitzaren adjudikazioa enpresa partaideen kopuruaren mende egongo da.
2. EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzen dituzten enpresen partaidetza indartuko da.
3. Standaren neurri zehatzak azokak segurtasun-protokoloa baieztatzean zehaztuko dira.

PARTE HARTZEAREN KOSTUA

SIRHA LYON 2027 azokan, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatu eta merkaturatzen dituzten enpresen partaidetza indartuko du.

GARRANTZITSUA:

Banakako standak adjudikatzeko, **inskripzio osoaren ordena zorrotza** jarraituko da, eta ezinbestekoa izango da honako hauek bidaltzea: ordainagiria, enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta dituela egiaztatzeko frogagiriak, lehengaien jatorriaren zinpeko adierazpena, araudia eta parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta inskripzioa, formularioaren bidez.

Lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodera** atxikitako enpresei.

KOSTUA ENPRESEN SAILKAPENAREN ARABERA		
1	2	3
Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.	Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioerik egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.	Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.
• Stand indibiduala: 2.900 + BEZ %21 = 3.509 € • Stand bikoitza: 5.800 + BEZ %21 = 7.018 €	• Stand indibiduala: 4.500 + BEZ %21 = 5.445 € • Stand bikoitza: 9.000 + BEZ %21 = 10.890 €	• Stand indibiduala: 6.400 + BEZ %21 = 7.744 € • Stand bikoitza: 12.800 + BEZ %21 = 15.488 €

EUSKO JAURLARITZAREKIN

PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2026ko UZTAILAREN 31a

Plaza-kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu izena emateko inprimakia betetzea eta ordainagiria, enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak ordainduta dituela egiaztatzeko frogagiriak, lehengaien jatorriaren zinpeko adierazpena eta araudia zein parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bidaltzeko, ahalik eta azkarren: agro@camarabilbao.com

Enpresa partaideak hautatzeko, izena emateko dokumentuen harrera-ordena errespetatuko da, eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodera** atxikitako enpresei.



Eskaera osatutzat jotzeko eta kontuan hartzeko, honako hauek egin beharko dituzte:

FORMULARIOA BETE

Inprimakian eskatutako informazioari dagokionez, azokako katalogo ofizialerako eta gainerako sustapen-elementuetarako datuak transkribatuko dira.

IZENA EMATEA



ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu-zenbakia:

ES49 3035-0179-61-1791069900

Laboral Kutxa, HAZIren izenean.

Laboral Kutxaren BIC kodea: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SIRHA LYON 2027"

- HAZIren Finantza Sailak faktura bidaliko die dagokion zenbatekoarekin, partaidetza baieztatu ondoren.

ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Derrigorrezkoa da parte hartu nahi duten enpresek **zinpeko adierazpena** aurkeztea, lehengaien jatorria egiaztatzeko, sinatuta eta zigilatuta.

Izena emateko eta informaziorako kontaktua:

agro@camarabilbao.com · 944 70 65 00

ARAUDIA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Nahitaezkoa da araudia eta parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, deialdi honetan eranskin gisa atxikitako ereduarekin bat. Adierazpen hori enpresaren ordezkariak sinatu beharko du.

EUSKO JAURLARITZAREKIN

PARTE HARTZEA



GARRANTZITSUA

Inskripzioa formalizatutzat jotzeko, IZENA EMATEKO INPRIMAKIA BETE BEHARKO DA, eta honako hauek bidali: ORDAINAGIRIA, ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZARENAK ORDAINDUTA IZATEAREN FROGAGIRIA, LEHENGAIEN JATORRIAREN ZINPEKO ADIERAZPENA ETA ARAUDIAK ETA PARTE HARTZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, inskripzio-data gisa adieraziz, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketaren eguna.

Izena emateko inprimakia betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadi Basque Country standean parte hartzea. Eusko Jaurlaritzak izen-ematearen onarpena jakinaraziko dio.

ENPRESA BATEK UKO EGITEN BADIO PARTE HARTZEARI FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKADIKO STANDEAN SARTU DELA JAKINARAZI ONDOREN, ORDAINDUTAKO KOPURU GUZTIA GALDUKO DU.

Soilik ezinbesteko kasuetan baloratuko dira enpresak aurkeztutako arrazoiak, eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzuliko da.

Soilik kasu hauetan aurreikusiko da enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzea:

- Enpresek eskatutako espazioak azokaren antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari adjudikatutako espazioa gainditzen badu, hautatuak izan ez diren enpresek izena eman aurreko kuota jasotzeko eskubidea izango dute.
- Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea baliogabetzen bada ezinbesteko kasuagatik edo parte-hartzaileen kopurua nahikoa ez izateagatik, enpresei ordaindu duten zenbatekoaren % 100 itzuliko zaie.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK



ESPAZIOAREN KONTRATAZIOA

Partaidetza-espazioa enpresa interesdunen artean banatuko da, azokaren antolatzaileek finkatutako osasun-neurrien eta segurtasun-protokoloen arabera.



STANDAREN DEKORAZIOA

Standak izango dituen oinarrizko apainketak eta altzariak uniformeak izango dira Euskadiko standeko erakusle guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- **Stand INDIBIDUALA:** mahai eta aulki 1, mostradorea, konexio elektrikoa, enpresa erakusketariaren errotulua, biltegi partekatua.
- **Stand BIKOITZA:** 2 mahai eta aulki, 2 mostradore, konexio elektrikoa, enpresa erakusketariaren errotulua, partekatua

OHARRA: ez da harraskarik sartzen banakako stand bakoitzean. Eremu komunean instalatuko dira. Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo stand-etako behar elektrikoen edozein aldaketa, horiek handitzea edo aldatzea badakar, zuzenean kontratatuko du erakusketari-kide bakoitzak, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsia izango du.



SALGAIEN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak salgaien bidalketa bateratua antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazitako puntu komun batetik, salgaiak standean entregatu arte. Ez da itzulera-garraiari antolatuko.

Salgaien bidalketaren kostua garraiolaria fakturatuko dio enpresa erakusketariari, zuzenean.

Hala dagokionean, garraio-enpresa adjudikaziodunaren datuak emango dira. Enpresek parte hartu beharko dute salgaien harreran, adierazitako orduan, baita standetako apainketa-lanak amaitzeko ere, inaugurazioaren aurretik eta beharrezko aurrerapenarekin.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK



PABILOIAREN MANTENTZEA (GARBIKETA, ELEKTRIZITATEA, URA...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-zerbitzuaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloiaren mantentze egokiaz. Hala ere, enpresa bakoitza arduratuko da esleitutako espazioa garbiketa-baldintza onenetan mantentzeaz.

Standeko gehieneko potentzia elektrikoa eta gehieneko kontsumoa finkatuko dira, eta erakusketariei jakinaraziko dizkiete prestaketa-izapideekin hasten direnean.

Oharra: oinarritzko altzarien, elementu elektrikoen edo premia elektrikoen aldaketa oro, baldin eta kostua handitu edo aldatzea badakar, apaintzaileak fakturatuko dio enpresa erakusketariari, zuzenean, eta hark ordaindu beharko du zenbateko handiago hori.



HOTZ-KAMARAK ETA BESTE ETXETRESNA ELEKTRIKO BATZUK

Erakusketariak ordaindu beharko du hotz-ganberen eta beste etxetresna elektriko batzuen alokairua. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila enpresen esanetara dago zerbitzuaren kontratazioa koordinatzeko, eta hornitzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusketariari.



AZOKAKO KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu enpresa erakusketariak azokaren webgunean eta katalogo ofizialean inskribatzeko ([izena emateko formularioan](#) jasotako datuak agertuko dira).

I ERANSKINA

ARAUDIA ETA PARTE HARTZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

[Izen-abizenak] jaun/andreak, _____,
_____ [zenbakia] NANarekin, _____ [sozietate-izena]
erakundearen izenean eta ordezkari gisa, _____ [zenbakia] IFZarekin,

egoitza sozialarekin [helbidea], eta _____, [kargua/ordezkaritza] gisa, **SIRHA LYON**
2027 azokan parte hartzeko eskaeraren harira, Euskadi 2027 Elikadura Industria Sustatzeko Planarekin bat,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Ordezkatzen duen erakundeak Euskadiko Elikagaien Industriaren 2027ko Sustapen Planean jasotako partaidetza-eskakizunak betetzen ditu deialdi honetan.
- Erakundearen egoitza soziala Euskadin dago, eta inskribatuta dago Eusko Jaurlaritzaren Elikadura Industrien Erregistroan.
- Erakundeak ordainduta ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak, baita eskatutako jarduketan parte hartu ahal izateko gainerako betebehar aplikagarriak ere.
- Erakundeak araudi aplikagarria betetzen du, honako hauek barne: lan-araudia, elikadura-segurtasuna, tratu-berdintasuna, kontratazio publikoa eta laguntza publikoetarako sarbidea, planean eta deialdi honetan jasotako terminoetan.
- Erakundeak ez du jaso zigor penal irmo edo administrazio-zehapen irmorik, honako hauekin zuzenean lotutako arau-hauste astun edo oso astunengatik: jarduketaren xede-jarduerarekin, elikadura-segurtasunarekin, lan-araudiarekin, tratu-berdintasunarekin, kontratazio publikoarekin edo laguntza publikoetarako sarbidearekin.
- Erakundeak ez dauka abian prozedura judizial edo administratiborik, partaidetza-baldintzak betetzeari, jarduketaren garapen egokiari edo xede-interes publikoari eragin ahal dietenak. Bestela, erakundeak konpromisoa hartzen du inguruabar hori jakinarazteko HAZI Fundazioari, baloratzeko beharrezko informazioa ematen.
- Erakundeak konpromisoa hartzen du HAZI Fundazioari jakinarazteko hautaketa-prozesuan zehar edo azokak iraun bitartean jazotako aldaketa garrantzitsu oro.
- Erakundeak adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa du, eta konpromisoa hartzen du HAZI Fundazioari bidaltzeko hala eskatzen duenean.
- Erakundeak badu honen berri: datu garrantzitsuak faltsuak nahiz okerrak badira edo ezkututzen badira, partaidetza ukatu, baztertu, mugatu edo gaitzetsi ahal izango da, balizko erantzukizunei kalterik egin gabe.

[Tokia] _____-n, [data] _____.
Sinadura:

[Sinatzailearen izena eta kargua]

Datuen babesari buruzko informazioa

Adierazpen honetan jasotako datuak HAZI Fundazioak / Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak tratatuko ditu, SIRHA LYON 2027 azokako partaidetza kudeatzeko, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, beharrezko jarraipen- eta kontrol-jarduketak egiteko.